

Ikasturte hasierako guraso-bilera

Haur Hezkuntza (5 urte)



Orereta-Errenteria, 2020ko urriaren 22a

AURKEZPENA

TUTOREAK

Idoia Elkano	ielkano@oreretalkastola.eus
Nagore Uranga	nuranga@oreretalkastola.eus
Amaia Pascua	apascua@oreretalkastola.eus
Maitane Martin	mmartin@oreretalkastola.eus

Ingeleseko irakaslea: Ainhoa Albizuri (aalbizuri@oreretalkastola.eus)

hIZAN PROIEKTUA

Badira urte batzuk Orereta Ikastola haur hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zela eta, honen ondorioz, haur hezkuntzako proiektua berriro egin da Ikastolen Elkarteko markoan oinarrituta. hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, Ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoek, materialek eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurraren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

hIZAN HH proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituena eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezanetatik abiatuta dauden jarduerak eta ekintza autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira, baina eta, guztiaren ginetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

Konfiantza eta segurtasuneko testuingurua batean bertako helduekin atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzeko, berdinkideekin harreman aberasgarriak izateko eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz.

Egiteko eta ekiteko motibazio eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, beraz, horixe da pedagogiaren oinarrian jarri duguna.

Laburbilduz, hIZAN HH proiektua, hezkuntza gaur egungo gizartearen beharretara egokitzeko eta berau hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektu bat da, zeina egitearen ekinez eraikiko duguna.

ZIKLOKO HELBURUAK

- Motrizitate ahalmenak erabiliz gorputza ezagutzea eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- Familia, natura eta gizarte-ingurunea, behatzea, aztertzea eta ezagutzeko interesa sortzea. Gizarte jardueretan eta Euskal Herriko kultura-jardueretan modu aktiboan parte hartzea.
- Ohiko jardueretan, autonomoagoa izateko, bere buruarekiko konfiantza eta ekimena garatzea.
- Gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzea.
- Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebazten trebatzea.
- Euskaran zein beste zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzea.
- Trebetasun logiko-matematikoak lortzeko, irakurketa-idazketa ikasten hasteko, mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua ulertu eta interpretatzea.

ZERO UNITATEA

Konpetentzia emozionalen garapenaren bidez, ikasleek estrategia emozional desberdinak erabiltzen ikasten dute eskolan eta eskolatik kanpo; familian eta gizartean egoera emozional zailei aurre egiteko: enpatia, gatazken ebazpena, erregulazio emozionala... Emozioak eta estrategia emozionalak irakatsi eta ikasi egin daitezke.

Konfinamenduak eragindako egoera emozional, linguistikoa eta akademikoa behatu ahal izateko, 0 unitatea landuko dugu orientazio departamentuarekin elkarlanean. Jolas kooperatiboak, ipuinak eta jarduera didaktikoak egingo ditugu haurren egoera sozial, emozional eta linguistikoa behatu eta lantzeko.

Bakarkako elkarrizketetan emango zaizue familiei egindakoaren berri.

BASO ESKOLA

Ikasturte honetako berrikuntza izango da. Baso Eskola batean, hurrek, jolas librean eta esperimendazioaren bidez inguruarekin duten harremana sendotzea da helburua. Ikasleek naturaren parte direla sentitu eta zaintzen ikasten duten bitartean, hezkuntzako arlo ezberdinak gozamen eta askatasunetik lantzen doazelarik.

Aurtengo egoerak beharra azaleratu eta azeleratu badu ere, naturan hezteak eskaintzen dizkigun abantailak ez dira osasun krisira soilik mugatzen. Adituek, klaseak aire librean ahalik eta denbora gehien luzatzeko gomendatzea adibidez, ez da berria; Mundu Mailako Osasun Erakundeak jada, 2010tik hobesten bait du eta naturan hezten duten ikastetxeak XX. mende hasieratik ezagutzen dira Europa osoan.

Hezkuntza proiektu honetan basoa bera ikasgela bihurtzen da, bere errutina, arau eta edukiekin. Azken hauek kurrikulum ofizialean oinarrituak daude eta baliabide didaktiko garrantzitsuena natura bera da.

Ikerketa eta esperientzia guztiak ados daude haurrengan ikusten diren honako hobekuntzekin:

- Harremanak sendotzen dira (enpatia, elkar laguntzeko joera, talde izaera) Autoestima (erronkak gaindtuz norbere buruarenganako segurtasuna indartu) Hizkuntza (hiztegia aberastu, ahozkotasuna garatu)
- Motrizitatea (lurzoru ezegonkorretan ibiltzea, igo eta jaitsi, jauziak, motrizitate fina)
- Behaketa zientifikoa (proba-akats entseguak, jakinmina piztu, eduki abstraktuak ikusgarri daude -urtaroak...-).
- Kontzeptu matematiko (sailkapenak, bolumenak, zenbaketa, segidak, pisua) Artea (basoaren soinuak, erritmoa, sormena).
- Zentzumenak garatu

IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

ESKOLA ORDUTEGIA

Goizez	09:00/09:30 (sarrera malgua) - 12:30
Arratsaldez	14:45 /15:00 (sarrera malgua) - 16:15

Ikastolara gogoz eta lasai etortzeko, aproposena izango litzateke eguneroko errutinei eta harremanei giro eta denbora egokia eskaintzea: esnatzeko denbora, gosaltzeko denbora, janzteko eta garbitzeko denbora... Goizeko ordutegi malguak guzti hau ahalbideratzea du helburu.

Eguerdia: jangelan gelditzen diren haurren bila 14:30etatik 14:45etara etor zaitezke.

KONTAKTUA

Tutorearekin harremanetan jartzeko, aurretik hitzordua adostea komenigarria da. Deitzeko ordu egokienak: 8:45–9:00

- Tel.: 943 52 03 97 (Luzapena: 251 / 250 (jangelaren aldea))

BILERAK

- Orokorrak: ikasturte hasiera eta bukaeran
- Bakarkakoak: azaroan eta ekainean

PSIKOMOTRIZITATE SAIOAK

Ikasturte honetako egoera berezia dela eta, psikomotrizitate saioak kanpo espazioetan burutuko dira. Beste hainbat parke eta espazioak hontarako erabiliko ditugun arren (Gaztañoko parkea, Fanderia, Arramendi...), Txirrita parkea izango da, batez ere, jardun hauetarako erabiliko duguna ikasturtean zehar.

TXIRRITA PARKEKO IRTEERAK

	ASTELEHENA	ASTEAZKENA
GOIZA	Maitane/Nagore	Idoia / Amaia
ARRATSALDEA	Idoia /Amaia	Maitane/Nagore

Saio hauen helburua gorputz mugimenduaren koordinazioa garatzea eta mugimenduaren bidez bere bizipenak adieraztea izango da.

Gomendagarria da, haurrak jantzi eta oinetako erosoekin Ikastolara etortzea, honen helburua autonomiaren garapenarekin bat dator eta.

EKINTZA OSAGARRIAK

Jai eta ospakizunak

- Euskararen eguna

- San Tomas
- Santa Ageda
- Inauteriak
- Ikastolaren eguna

Irteerak

- Hosto bila
- Eskolatik antzokira
- Ikasturte amaierako irteera
- Eguraldi onarekin herriko parkeetara irteera

ORIENTAZIOA ETA HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK, ARLOEN ANTOLAKETA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- Itziar Basterrika (HH)
- Amaia Arruti (LH)
- Jose Mari Iriondo (DBH)

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- Ane Aierbe (LH)
- Eneka Arratibel (LH)
- Susana Marcos (DBH)

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- Oihana Latasa
- Maite Inziarte
- Aitor Franco

ORIENTAZIO DEPARTAMANTUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarrizko konpetenziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.


Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da, gehien bat:

A) Tutoretza eta orientazioa

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, gela barruan zein kanpoan landuko dena, eta ikasleei beren garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

B) Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko konpetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



GURASO BATZORDEA

ZER DA GURASO BATZORDEA?

Guraso Batzordea Ikastolaren egiturako estamentu garrantzitsu bat da, eta gela bakoitzeko ordezkari batek edo gehiagok osatzen dute.

ZERTARAKO BALIO DU?

Guraso Batzordeak gurasoen ikuspegia eramaten du Ikastolaren etapa guztietako zuzendaritzetara. Ez soilik kezak, kexak eta zalantzak, baita iradokizunak eta proposamenak ere. Izan ere, azken urteetan hori da indartu nahi izan duguna: Guraso Batzordeen indar eraikitzailea. Era berean, zuzendaritza taldeen, batzordeen eta Artezkaritzaren informazio garrantzitsua jasotzen da batzordean. Alegia, Ikastolako eremu guztietan egiten diren gauzei buruz informatuta egoteko modua da batzordeko kide izatea.

Azken batean, Guraso Batzordeko partaide izanda, gure haurren Ikastolako bidean eta bizitzan modu aktiboan hartzen dugu parte. Gurasoen ikuspegiak ezinbestekoak dira gure haurren Ikastolako egunerokotasunean eta partaide eta

iritzi anitzek aberastu egiten dute taldea. Beraz, ordezkari izateak eragin dezakeen errespetu, beldur eta zalantzen gainetik, egin ditzakezuen ekarpen txikiak ere ongiatorriak izango dira guraso batzordean eta kide guztiak bat datoz esperientzia aberasgarria dela berresteko garaian.

Gaur egun, gure Ikastola hezkuntza proiektua eraldatzeko prozesu bete-betean dago, eta (H)lzan proiektu pedagogiko berrian gurasoen papera definitzeke dago. Itxialdi garaian, denok izan ditugu zalantzak ikas prozesuan gure seme-alabak laguntzeko garaian ongi ari ote ginen....Haurren erritmo eta interesak jartzen dira erdigunean, baina zer ekarpen egin ditzakegu gurasoek planteamendu honetan? Aurten guraso batzordeak bereziki gai hau jorratu nahiko luke, etor daitezkeen datoen itxialdiei modu egokian erantzuteko.

ZENBATERO IZATEN DIRA BILERAK?

Bileren ohiko maiztasuna: hilabetean behin.

Animatu eta parte hartu!

ERANSKINAK

ZORRIAK



Eskola garaia iristearekin batera haurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan haurrek higiene neurri egokia izan arren. Zorriak erabateko bere ostalariaren erabateko dependentzia du, bai elikatzeko, bai bizitzeko. Erraztasun handia dute lagun batengandik beste batengana pasatzeko, ukipen txikiak aski izan daiteke. Zorri edo bartzek kutsaturiko arropa, orrazi, kapela edo edozein objektu erabiltzea aski izan daiteke kutsatzeko.

Garai batean zorri kutsadura higiene eskaseko biztanleria artean sortzen bazen ere, zorriek nahiago dute azal garbian bizi, eta ondorioz arrunta da higiene neurri egokiak dituztenek ere zorriak izatea.

Ongi garbituriko biztanleen artean nekez agertu ohi dira gorputz-zorriak, ohikoena burukoak dira, eta bereziki 6-10 urte bitarteko haurrengan.

Bereziki gizakiongan agertu ohi diren zorriak bi dira: gorputzekoak eta burukoak. Burukoak gehienetan atzealdean agertzen dira, eta nahiago dituzte luzera ertaineko ileak, ez luzeak ez motzak; gorputzekoak, berriz, torax edota besapeko ile artean ibiltzen dira, baita arropa ehunen zuntz artean ere.

Zorriak ziztatzean injektatutako txistuak azaleko hipersentiberatasuna sortzen du, ondorioz handitu egiten da eta azkura eragiten du. azkura dela eta, hazka egiten dugu eta ondorioz gehiago handitzen da, eta bakterio infekzioak errazten ditu, negal, zarakar edota zorne-jarioa agertzen dira.

Badira zenbait gai zorriak akabatzeko egokiak, ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, arrazoi hau dela eta erabilera arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz eta hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, honetarako bereziak diren hortz estudun orraziak erabiliz.

Kutsatua izan den inguruko buruak ere miatu behar dira, ikaskideak, senideak... Eskolara honen berri ematea ezin bestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira eta aukera izanda lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu erdiz beratzen eduki intsektizida disoluziotan.

EGIN KLIK!!!!

ANIMA ZAITEZ!! ANIMA ITZAZU!!

“Euskarak behar zaitu. Gure hurrek eta gazteek ere behar gaituzte: euskararen aldeko hautua egin dezaten, euskaraz **goza** dezaten... **EUSKARAZ BIZI** daitezen.”

- Anima zaituz eta egin ezazu euskaraz, zure neurrian, zure tamainan.
- Anima itzazu euren artean ere euskaraz egin dezaten.
- Lehenets itzazu euskaraz dauden TB eta irrati-saioak.
- Goza ezazue elkarrekin euskal musika entzunez.
- Apunta itzazu orduz kanpoko euskarazko jardueretan.

“EZ DA HORREN ZAILA”



PRESENTACIÓN

TUTORAS

Idoia Elkano	ielkano@oreretalkastola.eus
Nagore Uranga	nuranga@oreretalkastola.eus
Amaia Pascua	apascua@oreretalkastola.eus
Maitane Martin	mmartin@oreretalkastola.eus

Profesora de inglés: Ainhoa Albizuri (aalbizuri@oreretalkastola.eus)

PROYECTO hIZAN

La Ikastola Orereta llevaba ya algunos años reflexionando en torno a la Educación Infantil, y como consecuencia de ello, se ha renovado el proyecto de Educación Infantil tomando como base el marco de la Confederación de Ikastolas. Podemos afirmar que el proyecto hIZAN EI es un proyecto que tiene como objetivo el bienestar de las personas, basado en el hecho de que la niña o niño es una persona llena de aptitudes y que es una persona que está convencida de su capacidad intrínseca de aprender del mundo, que llega para cambiar los modos de trabajar y los puntos de vista ante ello.

No hay duda alguna en que el bienestar precisa de un contexto saludable y que ese sistema estará condicionado por las familias, la comunidad que conforma la Ikastola, la organización arquitectónica del espacio, los materiales utilizados y, sobre todo, las relaciones respecto al grupo de iguales. Al mismo tiempo, constituyen un pilar de ese bienestar las intervenciones realizadas en el proceso educativo, tales como dar respuesta de manera sensible y adecuada a los instintos de la niña o niño, identificar, valorar y responder a sus aptitudes, y ayudar a gestionar las dificultades una vez identificadas éstas.

En el proyecto hIZAN EI es la propia niña o niño el protagonista de su aprendizaje, y será ella o él quien desarrollará sus aptitudes y quien recibirá en el transcurso de dicho proceso, cómo no, ayuda por parte de las personas adultas. De hecho, las actividades y acciones autónomas existentes partiendo de sus ganas, su placer, su interés y sus necesidades constituyen la base para el aprendizaje y el desarrollo psicomotor, afectivo, social y cognitivo.

La niña o niño necesita el juego tanto como el aire, a fin de aprender a comprender y gestionar el mundo en el que está viviendo. En nuestra opinión, mediante el juego y la experimentación se consigue respetar los ritmos individuales del alumnado, se enriquecen la autonomía, el trabajo en grupo y

las relaciones interpersonales, pero, por encima de todo, se desarrollará la confianza que la niña o el niño necesitarán en el transcurso de su vida.

En un contexto de confianza y seguridad, tendrán la oportunidad de entablar una estrecha relación con las personas más cercanas, explorar el entorno, tener relaciones enriquecedoras con sus iguales y aprender, permitiéndoles todo ello desarrollar sus aptitudes. Convencidos como estamos de que son la motivación y la valentía para realizar y emprender lo que nos proporciona la confianza en nosotros mismos, es precisamente lo que hemos situado en la base de nuestra pedagogía.

Resumiendo, el proyecto HIZAN EI es un proyecto que pretende adaptar la educación a las necesidades de la sociedad actual y puesto en marcha a fin de mejorar dicha sociedad, que construiremos a fuerza de empeño.

OBJETIVOS DEL CICLO

- Conocer el cuerpo empleando las capacidades motrices y aprender a respetar las diferencias.
- Observar, analizar y generar interés por conocer la familia, la naturaleza y el entorno social. Participar de manera activa en las actividades sociales y en las actividades culturales de Euskal Herria.
- A fin de ser una persona más autónoma en las actividades diarias, desarrollar confianza e iniciativas respecto a sí misma.
- A fin de desarrollar aptitudes emocionales y afectivas, crearse una imagen positiva y real de sí mismo/a.
- A fin de relacionarse con las personas del entorno e interiorizar las normas básicas para la convivencia y las relaciones sociales, formarse y ejercitarse en la resolución de conflictos de manera pacífica.
- Desarrollar aptitudes comunicativas tanto en euskera como en otros idiomas.
- A fin de lograr habilidades lógico-matemáticas, de comenzar a aprender la lectura-escritura, y de comenzar a desarrollar el movimiento, los gestos y el ritmo, comprender e interpretar el mundo que le rodea.

UNIDAD 0

Mediante el desarrollo de sus competencias emocionales, las y los alumnos aprenden a desarrollar diferentes estrategias emocionales en la escuela y fuera de ella para hacer frente a las complicadas situaciones emocionales que surgen en el ámbito escolar, familiar y social; empatía, resolución de conflictos,

regulación emocional... Las emociones y estrategias emocionales se pueden enseñar y aprender.

Para observar la situación emocional, social, lingüística y académica provocada por el confinamiento y poder adaptarnos a las necesidades del alumnado vamos a trabajar la unidad 0 en colaboración con el departamento de orientación. Realizaremos juegos cooperativos, utilizaremos cuentos y trabajaremos actividades didácticas para observar y trabajar ante la situación emocional, lingüística y social de los niños y niñas.

Se os informará a cada familia del trabajo realizado en la reunión individual con la tutora.

BASO ESKOLA

Será la novedad de este curso. En la Baso Eskola, el objetivo es fortalecer la relación de los niños y niñas con el entorno, mediante el juego libre y la experimentación. Los alumnos y alumnas aprenden a sentir que forman parte de la naturaleza y a cuidar de ella mientras trabajan diferentes áreas educativas desde el disfrute y la libertad.

Aunque la situación de este año ha hecho aflorar y acelerar la necesidad, las ventajas que nos ofrece la educación en la naturaleza no se limitan sólo a la crisis sanitaria. La recomendación de los expertos de alargar lo más posible las clases al aire libre, no es nueva, ya que la Organización Mundial de la Salud (OMS) lo prefiere desde 2010 y los centros educativos que educan en la naturaleza se conocen en toda Europa desde principios del siglo XX.

En este proyecto educativo el propio bosque se convierte en aula con sus rutinas, normas y contenidos. Estos últimos están basados en el currículum oficial y el recurso didáctico más importante es la propia naturaleza.

Todas las investigaciones y experiencias están de acuerdo con las siguientes mejoras que se observan en los niños y niñas:

- Se refuerzan las relaciones (empatía, apoyo mutuo, carácter grupal).
- Autoestima (superar retos refuerza la seguridad en un/una misma).
- Lenguaje (enriquece el vocabulario, desarrolla el lenguaje hablado).
- Motricidad (caminar por suelos inestables, trepar, descender, saltos, motricidad fina).
- Observación científica (ensayos de prueba y error, aumento de la curiosidad, visibilidad de contenidos abstractos -estaciones del año...).
- Conceptos matemáticos (clasificaciones, volumen, recuento, secuencias, peso) Arte (sonidos del bosque, ritmo, creatividad).

- Desarrollo de los sentidos...

ORGANIZACIÓN DEL CURSO

HORARIO ESCOLAR

Mañana	09:00/09:30 (entrada flexible) - 12:30
Tarde	14:45 /15:00 (entrada flexible) - 16:15

A fin de acudir a la Ikastola con ganas y con tranquilidad, lo más apropiado sería ofrecer una ambientación y un tiempo que resulten adecuados a las rutinas y a las relaciones diarias: el tiempo para despertarse, el tiempo para desayunar, el tiempo para vestirse y asearse... El horario flexible de la mañana tiene como objetivo posibilitar todo ello.

Mediodía: podéis acudir en busca de las niñas y niños que se queden en el comedor de 14:30 a 14:45.

CONTACTO

Para ponerse en contacto con las tutoras, conviene acordar cita previamente. Horas más apropiadas para llamar: 8.45- 9:00

- Tel.: 943 52 03 97 (Extensión: 251/250 (pasillo del comedor))

REUNIONES

- Generales: al inicio y al final del curso
- Individuales: en noviembre y junio

SESIONES DE PSICOMOTRICIDAD

A causa de la situación excepcional que estamos viviendo las sesiones de psicomotricidad se realizarán en el exterior. Para ello, iremos a diferentes parques del pueblo (Gaztaño, Fanderia, Arramendi...), pero nuestro principal espacio para trabajar la psicomotricidad será el parque Txirrita.

SALIDAS AL PARQUE TXIRRITA

	LUNES	MIÉRCOLES
MAÑANA	Maitane/Nagore	Idoia / Amaia
TARDE	Idoia /Amaia	Maitane/Nagore

El objetivo de esta sesión será desarrollar la coordinación del movimiento corporal y manifestar sus vivencias mediante el movimiento.

Se recomienda que las niñas y niños vistan con calzado cómodo. Su objetivo coincide con el desarrollo de la autonomía.

ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS

Fiestas y celebraciones

- Euskararen eguna
- Santo Tomas
- Santa Ageda
- Carnavales
- Ikastola Eguna

Excursiones

- Recogida de hojas
- Teatro “Eskolatik antzokira”
- Excursión de final de curso
- Visitar los parques del entorno

ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO DE ORIENTACIÓN Y PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

- Itziar Bastarrika (HH)
- Amaia Arruti (LH)
- Jose Mari Iriondo (DBH)

PROFESORES ESPECIALISTAS EN PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

- Ane Aierbe (LH)
- Eneka Arratibel (LH)
- Susana Marcos (DBH)

ESPECIALISTAS DE APOYO EDUCATIVO

- Oihana Latasa
- Maite Inziarte
- Aitor Franco

OBJETIVO DEL DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN

El objetivo del departamento de orientación es que todas y todos los alumnos adquieran las competencias básicas y ayudarles en el desarrollo de su proyecto personal.


Por lo tanto, el departamento de orientación de Orereta Ikastola tiene como función impulsar una orientación educativa, ayudando en el currículum y a todos y todas las alumnas. La labor del departamento se basa, sobre todo, en dos procesos:

A) Tutoría y orientación

En tutoría y orientación se trabajan diferentes actividades dentro del aula y fuera de ella, para ayudar a las alumnas y alumnos en diferentes áreas de su desarrollo: conocimiento y aceptación personal (desarrollo personal), proceso de socialización (desarrollo social), llevar adelante los estudios (proceso de aprendizaje), y tomar decisiones para el futuro (orientación laboral).

B) Atención a la diversidad

Estamos elaborando un plan que recoge las medidas organizativas ordinarias y extraordinarias para dar respuesta a las necesidades educativas de todo el alumnado, con el objetivo de ayudar que todas las alumnas y alumnos adquieran las competencias básicas.



COMISIÓN DE PADRES Y MADRES

La comisión es un estamento importante dentro de la estructura de la Ikastola, y la conforma un o una representante de cada aula.

FUNCIONES DE LA COMISIÓN

La comisión transmite a los equipos directivos de la Ikastola la visión de los padres y madres. No solo las preocupaciones, dudas, quejas... también traslada sugerencias y propuestas. Y esto último es precisamente lo que queremos potenciar, la capacidad constructiva de la comisión de padres y madres. Así mismo, recibimos información de la dirección de la Ikastola, de las distintas comisiones y del Consejo Rector. En resumen, formar parte de la comisión es una manera de estar informado de todo lo que acontece en los distintos ámbitos de la Ikastola.

Ser miembro de la comisión de padres y madres es una forma de participar activamente en el recorrido y la vida de nuestros hijos e hijas en la Ikastola. Necesitamos la visión de los padres y madres en el discurrir de la Ikastola y una participación y opinión plural suma y enriquece el grupo. Por lo tanto, ante el respeto, el miedo o las dudas que podáis tener ante el hecho de ser representantes del aula deciros que; incluso la aportación más pequeña será bienvenida y que todos y todas las que han formado la junta coinciden en que es una experiencia enriquecedora.

En este momento, la Ikastola, está en pleno proceso de innovación pedagógica. En este contexto queda por definir el papel que las familias debemos tener en el proyecto HIZAN. En el confinamiento todos tuvimos dudas a la hora de ayudar a nuestros hijos e hijas...

El proyecto pone al niño y la niña en el centro de la acción pedagógica respetando su ritmo y reforzando el interés, pero... ¿cuál es la aportación que podemos hacer los padres y las madres? Este es el tema sobre el que queremos reflexionar durante este curso y poder responder de la mejor manera posible a posteriores confinamientos que pudieran ocurrir en el futuro.

PERIODICIDAD DE LAS REUNIONES

Son mensuales.

Si te animas a formar parte de la junta ponte en contacto con la tutora o cualquier otro miembro de la misma.

¡Anímate y participa!

ANEXOS

PIOJOS



Con la llegada del periodo escolar, suelen reaparecer las infecciones de piojos entre las niñas y niños, aunque en la mayoría de los casos las niñas y niños hayan tomado medidas higiénicas adecuadas. El piojo tiene una dependencia total de su huésped, tanto para vivir como para alimentarse. Tienen una gran facilidad para pasar de una persona a otra, el más leve contacto puede ser suficiente. Ropa infectada por los piojos o liendres, un peine, una gorra o la utilización de cualquier objeto puede ser suficiente para infectar.

Aunque en una época la infección de piojos surgía entre población de escasa higiene, los piojos prefieren vivir en piel limpia, y por lo tanto resulta común que personas que tomen medidas adecuadas tengan también piojos.

Entre la población bien aseada difícilmente se encontrarán piojos de cuerpo, lo más habitual es que sea piojos del cabello, y especialmente entre niñas y niños de 6-10 años.

Los piojos que suelen aparecer en los seres humanos son de dos tipos: los de cuerpo y los del cabello. Los del cabello aparecen la mayoría de las veces en la parte posterior, y prefieren cabellos de tamaño medio, ni largos ni cortos; los de cuerpo, por su parte, se mueven entre el vello del tórax o de la axila, así como entre las fibras de tejido de la ropa.

Cuando el piojo pica, la saliva inyectada provoca la hipersensibilidad de la piel, por lo que se inflama y provoca picor, lo que provoca a su vez que nos rascamos y, en consecuencia, el picor crece aún más y facilita las infecciones vía bacterias, dando lugar a la aparición de erupciones, costras o pústulas de pus.

Existen algunos productos adecuados para acabar con los piojos, no son cosméticos, sino verdaderos bioácidos, por lo que sus normas de utilización se deben respetar rigurosamente. Finalizado el tratamiento las liendres y los piojos muertos se deben retirar con cuidado, utilizando para ello peines especiales de dientes estrechos.

Se deben inspeccionar también los cuerpos de las personas cercanas a quienes hayan resultado infectados/as, tales como compañeras y compañeros de estudios, familiares... Es indispensable notificarlos a la escuela. Las ropas se deben limpiar en agua caliente y ser secadas con calor si es posible. El peine y


los demás utensilios hay que tenerlos en remojo durante media hora en disolución de insecticida.

EGIN KLIK!!!!

¡¡ANÍMATE!! ¡¡ANÍMALES!!

“El euskera te necesita. Nuestros niños y jóvenes también nos necesitan: para que lo utilicen, para que disfruten, para que vivan en euskera.”

- Anímate y utilízalo, en la medida de tus posibilidades.
- Anímales a que se comuniquen en euskera.
- Prioriza los programas de TV y radio en euskera.
- Disfrutad juntos con la música en euskera.
- Apúntalos a actividades extraescolares que garanticen la comunicación en euskera.



“¡NO ES TAN DIFÍCIL, DEPENDE DE UN KLIK!”